

Kafe arko, eta ona

Naia Arantzamendi





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

NAIA ARANTZAMENDI

Kafe asko, eta ona

BAIGORRI

Gurutzatu nahi ez ditugun ateak, esan nahi ez ditugun hitzak eta, batez ere, egon nahi ez dugun lekuak daude. Hamaika aldiz joanda ere zure sentipenak aldatzen ez diren horietakoak. Ez zara ohitzen, ez zara eroso sentitzen, ez duzu hor egon nahi. Baina egon beharra duzu, eta kito. Heldutasunarekin batera eskupean datozen gauzetako bat: egin nahi ez duzun hori egin beharra, inork agindu gabe.

Bulegoa bereziki txikia da, begi-bistakoa da norbaitek ahalegin handia egin duela hoztasun hori mantentzeko, eta badirudi lortu ere egin duela. Ezin hotzagoa baita. Medikua hartzeko ordenagailuko teklatuaren kontra ematen dituzten kolpe txikien soinuak hartzen du medikuaren gelako soinu paisaia. Ez da beste ezer entzuten. Klik. Klik. Denbora lerroa markatzen ariko balitz bezala, orduak balira legez igarotzen ari diren segundoak. Ez du arin idazten, ezta mantso ere, beharrezko denbora hartuaz baino.

Klik.

Klik.

Maixanek ez du begiradarik kentzen hartz horietatik, gelan ez baitago ezer bere arreta deitzen duenik, eta une batez buruan duen iskanbila guztia gelditu egiten da. Teklatuaren soinuak bere burmuina geldituko balu bezala, inoiz gertatzen ez zaion bezala. Gauza gehiegi ditu buruan, baina ez du horietako bakar bat ere argitasunez pentsatzeko denborarik hartzen. Gurpil baten barruan sartu eta eginbeharrak aurrera bultzatzen zaituenean jarduten duzun automatizazioaz egiten ditu gauzak; egin, jarraitu, egin. Egiten ari zaren hori benetan nahi duzuna den edo ez pentsatzen gelditu baino lehenago, egin. Hausnartu baino lehenago, egin. Gelditu baino lehenago, egin.

—Aldaketak izan dituzu azken boladan? —zuzentasun osoz galdetu du medikuak, aurrean duen espedientea irakurri nahian, betaurrekoak bere lekuan kokatzen dituen bitartean.

Begirada ordenagailutik desbideratu gabe egin daitekeen galdera bat al da hori? Tramite bat da galdera hori medikuarentzat, tramitea baita Maixan medikuarentzat. Baina galdera hori ez da tramite bat. Azken lau urteetan izandako gorabehera guztiak etorri zaizkio burura Maixani.

Aldaketak, nolakoak? Onak? Txarrak? Norberak eragindakoak? Etorritakoak? Aldaketa bera baino aldaketarik eza ere izan daiteke arrazoi; egin nahi dituzun baina egiten ez dituzun aldaketak.

Hiriaren monotoniatik eta gurpil egitura duen bizitza erritmo frenetiko batetik ateratzeko egin beharreko aldaketarik eza.

Teklen soinua gelditu egin da. Erantzunik ezak egunero egiten duen tramitearen hoztasuna apurtzera eramane du medikua. Egunean hogeita hamar emakume ikusten dituen ginekologoak tarte bat hartu du aurrean duen emakumearen urduritasuna kudeatzeko. Edo ahalegina egiteko, behintzat.

—Kirolaria zara? —betaurrekoak berriz erori zaizkio sudurraren erdialdera.

—Eskubaloian aritu izan naiz, herrian taldea baitago, baina hirira ikastera etorri nintzenean utzi egin behar izan nuen. Noizbehinka mendira joaten naiz, baina aisialdi gisa. Etxera bueltatzen naizen bakoitzean. Egia da geroz eta gutxiago joateko aukera dudala eta...

—Janariari dagokionez, aldaketarik egin al duzu? —moztu egin dio eta segundo erdi batez begirada zuzendu ere, erantzuna baiezkoa izatea esperoko balu bezala.

Amaren tuperrekin igarotzen du astea, edo asteko lehen egunak, behintzat. Etxeko janaren parekorik ez baitago. Etxean sentitzeko modu bat da amak estimuz eta denbora eskainiz prestatutako jana mahaigainean jarri eta aurrez aurre familia izan ez arren, berotasun hori sumatzea. Dena den, sukaldari fina da Maixan, errezetak egiteko denbora hartzen duen horietakoa. Beti ere etxetik ekarritako lehengaiekin, ahal den heinean, supermerkatuen kontzeptua ez baitu hurbileko, eta ez du izan nahi ere. Etxeko gasna, esnekiak, barazkiak, bizilagunaren ogia, irina, marmelada...Denak ala denak, Baigorri-Ortzaizeko eskualdean eginak. Mimos landutakoak ez baitu beste ezerekin alderatzerik. Supermerkatu ezezagun horietan Km 0 bezala saltzen dituzten horiekin ere ez.

—Ez, beti bezala —etxeko sukaldea irudikatzen du gogoz, nahia eta beharra uztartuta.

—Unibertsitatean zaude. Azterketa garaia duzu, ezta? —seme-alabak izanen ote ditu hori jakiteko.

—Doktoretza egiten aritu naiz, baina azken lana bukatzeaz nago.

Klik. Klik.

Teklen soinua bueltatu da, historia klinikorako interesgarria den zerbait entzun omen du medikuak.

—Garai hauek gorabeheratsuak izaten dira eta urduritasunak eragin zuzena izan dezake hilekoan. Estresatuta sumatu zara?

Hitz magikoa. Denaren eta ezerezaren erantzuna aldi berean. Baina zer da estresa? Sareetako gainproduktzioa zurretzen duen eragilea edo ondorioa. Auskalo. Definizioz egoera zailen aurrean gure gorputzak duen erantzuna. Definizio horrek bere baitan hartu al dezake Baxenabarreko 24 urteko neska baserritar batek etxetik urrun hiriko abiadura zitalarekin bat ez egitea? Etorkizuna non irudikatu behar duen erabakitzeko une zailei aurre egin nahian baina ezinean ibiltzea? Egin beharrak bultzatuta berarengandik espero duten hori egitearen eta bere barne nahien bulkadaren arteko etengabeko gatazkan aritzea?

—Beti bezala nago —ez du klik soinua entzun Maixanek, baina erantzun horren atzean badago interesgarria eta berebiziko garrantzia duen informazioa historia klinikorako.

Ikasketak, praktikak, asteburuko lana, etxean laguntzea, etxeko gatazken erdigune izatea, familiarengandik urrun egotea, bere bizitza maneiatzea eta zer nahi duen ez jakitea dira Maixanentzat beti bezala egotea. Maixanek ez du bat egiten hitz horrekin. Agian ez baitu hurbilekotasunik sumatzen. Ez dakielako zer den, edo beldurra ematen diolako. Badirudi, oster, aurrean duen mediku hotzak badakiela zerbait horri buruz.

—Barikua da. Etxera bueltatuko zara gaur?

Orain arte egindako galdera guztien artean Maixani poza eta irribarrea nahigabeen sortu dizkion bakarra. Ez da ausaz.

—Bai. Bai. Asteburua pasatzera noa, bai.

Klik.

Teklen soinua bueltatu da, interesekoa izanen da etxera egingo duen bidaia ere historia klinikoan.

—Seguru asko ondo etorriko zaizu. Dena den, egindako proben emaitzak normalak dira, dena ondo dago; ondo jaten duzu, kirola neurritz egin... Ez dago faktore objektiborik zure hilekoaren etenaldia justifikatzen duenik. Orduan, antisorgailuak hartzea aukera bezala proposatuko nizuke, hilekoa bueltatu eta egonkortzeko erremedio bat izan daiteke.

Hilekoa ez izatearen erremedioa antisorgailuak hartzea. Hilekoa desagerraraztea eragiten duen ohiko prozesu bat abiaraztea jada hilekoa ez duen pertsona batengan. Erremedio aparta dirudi, zalantzarik gabe. Emakumeen gorputzaren azterketa falta eta aurrean duen medikuaren interes faltaren erantzuna, arazoa errotik konpondu beharrean txaplata jarri eta ezikusiarena egitea.

—Errezeta egingo dizut, probatu eta ikusiko dugu nola doan.

Maixanek orokorrean ez daki zer nahi duen bizitzan, baina zer ez duen nahi nahiko argi izan du beti. Hala ere, bere barne nahien kontra doan jokabide barnerakoia hartu eta ezer esan gabe geratu da, isilik, baina zer egingo duen jakinaz. Medikiak ez zuen bere erantzunik behar, itxuraz. Zuzenean eman dio errezeta, zer nahi duen edo ez duen nahi galdetu gabe. Hortaz, behar ez zuen erantzuna ez ematea erabaki du. Eta medikuak egin duen bezala, berak ere nahi duena egingo du. Hasteko, etxera bueltatu. Baina, une honetan, haserrealdia kudeatu eta egunarekin jarraitzeko kafe bat behar du.

HAZITOKIA

Gelditzeko moduak daude, une batez arnasa hartzeko tarteak. Kafea hartzeko tarteak dira horiek Maixanentzat. Etxetik datorkion ohitura da, edo apeta. Goizeko 05:00etan jaikitzearekin batera martxan jartzen den etxean, eta aldi berean familia-enpresan, kafea premia bat da. Etxean, etxekoekin, lanean, solasean, bizitzen, haserretzen, hitzik ez egiten eta isiluneak luzatzen diren lekuan erremedio ukaezina baita kafea, baina ez edozelakoa, kafe ona. Edo hori da behintzat Ameztai etxeko legea. Puntako gasna bereizgarriaren atzean dagoen magia; kafeaz gozatzeko hartzen duten denbora. Gauzak konpontzeko denbora, edo haserrealdiak baretzekoa, edo areagotzekoa. Egunaren araberakoa izaten da kafearen tarte, baina tarte hori egon dadila. Amaren deia ikusi bakoitzean bi aldiz pentsatzen du Maixanek telefonoa hartu edo ez, beranduago deitzea beti da ideia hobea momentuan amari aurre egitea baino. Ez berarekin hitz egin nahi ez duelako, esan nahi ez dion guztia isilarazteko denbora hartu behar duelako baino. Maskara bat jartzeko behar duen denbora hartu behar du telefonoa eskegi baino lehenago. Amari esan nahi ez dizkion guztiak ezkutatuko dituen maskara. Kafeari zurrutada eman eta etxekoaren zapoarekin zerikusirik ez duela konturatuaz, amarekiko hurbiltasuna sumatu eta telefonoa hartzea erabakitzen du.

—Maitea, non zaude? Autoan zaude, soinuagatik. Heltzear zaudela kasu egin. Adi egongo naiz. Erantzunik behar ez dituzten galderak egiten ditu amak, edo hobe esanda, bere kabuz erantzuten dituenak.

—Orain nintzen autoa martxan jartzekoa. Zer moduz doa dena? Eñaut?

—Hiru kafe daramatza dagoeneko —Maixanek esku artean duena bezalakoak izango balira, ez luke bigarrenik hartuko.

—Bakarrik hartu ditu? Edo batera ere hartu dute baten bat?

—Bakarrik. Ez da zure aitarik ageri goiz osoan. Ez dakit zer gertatu zaien gaur, baina...

—Ez kezkatu, konponduko dute, beti bezala. Heltzear nagoela abisatuko dizut.

—Gexan etorri da gasna bila eta afariarena kontatu dit. Zein ederra lagunartean batzea. Egun aproposa da gaurkoa horretarako, gainera denbora da denok batzen ez zaretena, ezta? Non bilduko zarete, bere etxean?

Kafea familiaren edo etxeko enpresaren egoeraren erakusle gisa. Neurri gisa. Hiru kafe, dezente dira goizeko ordu hauetarako. Eñaut ez dago ondo. Gainera, hiru kafe hartzera joan eta aita ez hurbiltzeak haserrea sendoa dela adierazten du. Aita ez da hitz askokoa, bai ostera pentsatzekoa, hori da bere bekatua. Ez dakiela kanporatzen sentitzen duena eta barrena apurtu arte sufritzen aritzen dela. Kafe hartzeak beti dira une onak hitz egiteko, edo hitzik egin gabe ere zerbait adierazteko.

Bukatu baino lehenago komunetik pasatzera behartzen zaituzten kafe horietako bat du eskuartean Maixanek. Zurrutada eman eta bukatuz gero Baigorriaraino heltzea zaila egingo zaiola pentsatuta, kafea albo batean utzi eta autoa martxan jartzen du.

Autoak ematen dion lasaitasunarekin bat egiten du irratian Gaztea jarriaz batera. Beti gogoratu izan dio Telleriak bere lagun Gexan. Hitz egiteko gaitasuna, azalpenak emateko argitasuna, eta korrikalari fina, zalantzarik gabe.

Gexanek afarian elkarrekin bat egiteko proposamena luzatu die lagunei, gaur gauean, zerbait kontatu behar duela eta. Ez da horrelakoak egitekoa Gexan, ez da berriak zabaltzekoa, ezta bere gauzak denen aurrean esatekoa ere. Zerbait garrantzitsua izanen da, baina zer? Aitaren traktorearen gainean jaio, hazi eta hezi dira Maixan eta biak. Orduz geroztik ikasketak abiatu arte egunero elkarrekin denbora igarotakoak dira, lagunak, anaiak. Maixan Donostiara joateak urrundu egin zituen, zalantzarik gabe. Gexan herrian geratu zen; Maixanek, oster, hirira joateko bidea hartu zuen. Egin beharraren zama bere gain hartuta, beregandik espero zen hori egitera, bere buruari zer nahi zuen galdetu baino lehenago. Hala ere, distantziak ez du beraien harremanean eraginik izan. Edo hala uste zuen Maixanek, gaur arte.

Mugara ailegatu eta auto ilara amaigabe batekin topo egin eta ohiko Gendarmerieren kontrola igarotzeko bidelagun hartzen ditu Telleria anaiak. Martikorenaren abestia ere jarri dute, ze paradoxa, Frantzia dioen kartela parez pare izanik, jendarmeari leihatila jaitsi dio, lau hatz gutxi gorabehera. Barrura begirada bat eman eta eskuarekin igarotzeko keinua egin dio, Peugeot 205 zaharrean *“erkidetasunaren bozeramaile, xoriak mugaren bestalde”* doinuak darraien bitartean. Barikuro egin ohi duen bidea, begiak itxita egin dezakeena. Egunaren eta sentitzen duen horren araberrako musika bidelagun izanik. Etxera hurbildu heinean, oster, Irulegiko Irratia jartzea ohitura izanik. Egunero bidelagun izaten duen barne bozgorailua une batez itzali eta, kanpoko

zerbait entzutearekin, bere burmuinari aisialdi tarte bat eskaintzen dio autoan doala. Sentitzen duen horrekin bat egiten duena entzun, edo guztiz kontrakoa, hori izaten da hartu beharreko erabaki bakarra.

Aurten urte gorabeheratsua darama Maixanek. Barrenak mugituta ditu, sentimenduen korapiloa ederto nahasita baitu eta barne bozgorailuak dioenak urte amaieran kontuak ateratzen dizkigu. Musika entzuteko erabiltzen ditugun plataformetan bezala, urte amaieran gehien entzuten dugunaren zerrendak argitaratzean, gure bizitzako musika banda ateratzen da. Euskal musikazale amorratua zarela esan zenezake, Willis Drummond, Xiberoots eta Olatz Salvador zalea, baina top 3an Untxi Gaiztoa ateratzen bada, kontuak hor daude, ez dago horri uko egiterik. Euskal musika entzuten duzu soilik, baina reggaetona atera da zure zerrendan. Ondo zaude, bizitza orekatu bat duzu, baina buruari ez diozu etenaldirik ematen eta ez duzu hilekorik. Zer diozun, zer uste duzun, zer egiten duzun eta zer nahi duzun, gutxitan datoz bat. Zerrendak hor daude, datuak mahaigainean jartzeko. Baita gorputza ere, zerbait ondo ez doala azaleratzeko.

Zer izanen da Gexanek kontatu behar duen hori? Ezkontza edo haurra. Inguruan bizitza egonkortu bat daramate lagun taldeko gehienek. Gexanek gehien, bikotea, etxea, lana, familia egonkorra... Hala ere gainontzeko guztiek dute edo bikote finkoa edo lan finkoa edo etxea egiten ari dira... Maixanek ez du egonkortasunik inon, edo hala sentitzen du berak. Ikasketak bukatu berri, zer egin behar duen jakin gabe, etxetik urrun, lagunengandik urrun, nahi duen hori kanporatu ezinik. Sentipen horrek Maixanen barne gatazkaren bozgorailua martxan jartzen du. Zer nahi duen, zer behar duen, zer espero den beragandik. Hortaz, pentsamenduak isilarazteko erremedio ukaezina, zentzuz pentsatzea ahalbidetzen ez duen zerbait entzutea etxera heldu bitartean; bolumena igo eta has dadila Untxi Gaiztoa.

BILKETA

Sai bakar bat dabil Ameztai gainea. Maixanen autoarekin batera, norabide bera jarraituz, hegaldi lasai eta xamurrez hurbildu da etxera: zaindaria balitz legez. Maixani etxerako bidea zehaztu eta bere babeslekura onik eta osorik ailegatu dela ziurtatzeko zaindaria da. Bere lekuan dago orain, zainduta, babestuta, eroso. Etxean.

—Zertarako hitz eginen dut nik? Ez al dizut esan dei egiteko heltzear zeundenean Begira nola harrapatu nauzun, lorrinduta eta eskuak gasnaz josita —amak denak kontrolpean izan ohi du, nabaria da.

—Ez al da hori Ameztaioko gasnaren sekretua? —hain zuzen ere.

—Zein? Prozesua erdizka uztea?

Ameztaioko gasnaren sekretua bera da, ama. Bere lana, bere pazientzia eta etxe horretako oreka mantentzearen zama egunez egun bere gain hartzea. Denei eustea.

—Faltan bota zaitut, ama —telefonoz esaten ez diren hitzak, baina aurrez aurre barruan gorde ezin dituenak. Askatu beharra dutenak.

Etxe sentiarazten zaituzten besarkadak daude, eta gasna usaindunak badira, hobe. Eta txoriak begira badaude, hobe. Eta anaia gehitzen bada, hobe.

—Ni al naiz etxe honetan lanean dagoen bakarra? —Eñaut, bere osotasunean. Bilatu gabe ere erdigune diren pertsona horietakoa.

—Besarkada bat eskatzeko modu kaxkarra.

—Baina eraginkorra. Nik besarkadak eskatu egin behar ditudala dirudi eta —bat, bi eta hiru, Ameztaioko familia osatzeko bakar bat falta da besarkada horretan.

Langilea, goxoa, broma zalea eta anaia ona. Hori da Eñaut. Ekintzailea, etxeko enpresari jarraipena ematea erabaki zuena, Maixan egongo ez zela jakitun izanda ere, zaila izanen zela jakinda ere. Aitak bere ideia berritzaileak onartuko ez zituela jakitun izanda ere. Eta hor dago, belaunaldi aldaketaren eragilea, kafe onaren behar handiena duena. Maixanek maitatu, errespetatu eta eredu duen anaia.

—Zer moduz zaude? —anaia batek badaki galdera horren erantzuna ahizpari begiratuaz batera. Hain zuzen ere, horregatik egin dio galdera, zerbait ez baitu ondo ikusten ahizparengan.

—Zertan lagundu dezaket? —gezurrik esateko gaitasunik ez eta, erantzunik eza baliabide ezin hobe bilakatzen du ahizpa txikiak.

Beti dago zerbait egiteko Ameztoin. Lanak ez du etenik, ez dago deskantsurik; hortaz, bi esku baino lau hobeto eta lau baino sei...

—Edo kafe bat behar al duzu? —bere barrena husteko indarrik ez du Maixanek oraindik; bai, oster, anaiaren barrenak husten laguntzeko.

—Laugarrena?

—Hau behintzat eraginkorra izan daiteke.

Kafeak bakarrik hartzeak barne bozgorailua aztora dezake, norbaitekin hartzeak, lasaitu, eta bi hilabetez etxera agertu ez den arrebarekin hartzeak, korapiloak askatzeko erremediorik onena izan daiteke.

—Ez dago kaferik. Bazkaltzera —hitza, lege.

PROZESAKETA HEZEA

Ez dago alderatzerik, etxean jan inguruko lehengaiak oinarri izanda edo hiriko supermerkatuetako produktuak jan. Itxura, zaporea, kolorea, lana, baldintzak... eskuz landuak, mimoz eginak. Bertokoak ez du parekorik izanen, inoiz ez.

Mahai bete janari aurrean. 52 kilo ditu Maixanek baina bere etorrerak janaria hirukoizten du etxeko mahaian, jatuna bada, baina ez da hainbesterako. Behintzat, tupperrak eramango ditu igandean, dezente gainera.

—Kosterako azken sortakoa da? —mahaigainean utzi du Eñautek etiketa beltz erakargarria duen arnoa aitak probatu dezan. Hierarkiak hor baitaude, eta zerbaitetarako omen daude. Etxeko mahaiburuak probatu dezala.

—Bai, probatzeko eman zidan atzo, zerbait ezberdina probatu omen dute. Gasna eramatera joan nintzenean eman zidan —elkartrukea, egunerokotasunaren oinarria. Ama da sarea, ama da familiako aurpegia eta esku lana, ama da dena.

Berritasunak eta gaztetasuna. Hori da inguruko baserri zein etxeetan gertatzen ari dena, belaunaldi aldaketa ematen den heinean lehen sektoreak gazteak ditu oinarri, geroz eta gehiago, eta horrek aldaketak dakartza. Egiteko moduan, jokatzeko moduan, guztian. Horrek etxeetako tentsioak azaleratzea dakar eta kafearen kontsumoaren igoera, nola ez.

—Eskerrak eman beharko dugu bada, gure begiek zu ikusteko aukera dutelako —faltan bota duela esateko bere modua da. Aita hitz gutxikoa da, baina esaten dituenak ez ahaztekoak izan ohi dira.

Ezentzunarena egitea aitarengandik ikasi zuen Maixanek, behar ez diren hitzak ez kanporatzea. Neurtzea. Edo barruan dituen sentimenduak kanporatzeko gaitasunik ezari lotuta dagoen zakarkeriak esatea, noizbehinka. Esan nahi duzun hori kanporatzeko ezintasuna eta aldi berean beharra dituzunean, nahi ez diren hitzak kanporatzeko arriskua egoten da. Hortaz, elkarriketari ez jarraitzea onena dela onartuta, bazkariak aurrera darrai.

—Jarri denok mahaian, behingoz. Janaria hoztuko da eta —amak badaki noiz moztu egoera desatseginak.

Esan eta egin. Amaren hitza lege da etxean, izan behar duen bezala. Segundo erdi utzi baino lehenago gizonezko bien eskuek topo egin dute ogiaren saskian, elkarri parez pare begiratu, hitz erdikarik esan ez eta Eñautek eskua atzeratu du, aitari ogi pusketari hartzeko aukera utziz.

Maixanek saia balitz legez begiratzen du egoera kanpotik. Inork ez du hitzik egiten, beren arteko tentsioa labana batekin moztu daiteke. Baina ez da bera izan labana eskuan hartuko duena, mozteko arriskua handiegia baita.

Ama mahaian eseri eta minutu bat igaro ostean, inork hitzik egin ez duenean, Maixan kezkatu egin da. Aita eta anaiak hitzik ez egitea, aurrean janaria dagoenean, eguneroko ogia izan daiteke, baina ama isilik egotea... Zerbait gertatu da etxean eta Maixanek ez du horren berri.

—Zergatik ez duzue hitzik egiten? —kanpotik etortzeak dituen abantailak, tentsiotik at zaude eta egoera horiek mahaigaineratu ditzakezu.

Jana lehenengo, Eñautek begirada igoaz batera uler daiteke ez dela unea horri buruz hitz egiteko. Aitak ogi pusketari heldu eta begirada aurrean duen platerkadatik desbideratu gabe, eguerdiko bere parte hartzea jada egin duela erabakita, isilik geratzen da.

—Aste gogorra daramagu eta baldintza bat jarri nien duela pare bat egun. Laneko kontuak eguerdiko mahai inguruan ez direla aipatzen. Badaude gaiak jorratzeko etxe honetako arazoez haratago. Bada, orduz geroztik ez da hitzik egin mahai honetan. A ze nolako lasaitasuna dudan.

—Baina zer ari zaizue gertatzen? —ondo ezagutzen du anaia eta badaki zerbait kanporatu beharra duela, aukera eman nahi dio.

—Maixan, ez al didazu entzun?

—Ondo dauden gauzak bere horretan uztea ez dela zure anaiaren lehentasuna —aitaren parte hartzea beti nabarmentzen da, berak nahi ala ez.

—Ez duzu berritasun txikiena ere onartzen —hor dago Eñauten barrenean dagoen kezka.

—Zertarako? Jada ondo badago, zertarako aldatu behar duzu. Oker dagoena hobetzetik hasi zenezake —hasi da kafe orduan eduki behar zuten elkarrizketa, hala deitu ahal bazaio behintzat.

Pala partidu bat balitz legez, ezker-eskuin, bata besteari tantoa egin nahi eta pilotakada borobildu ezinik. Kanpotik etorri eta barrukoak astindu ditu segundo erdian Maixanek.

—Erabaki al duzu zein enpresatara joan nahi duzun? Aukera dezente eskaini dizute, ezta? —ama berean, ohituta dago elkarriketa hauen epaile izatera, eta gaur ez du parte hartzeko asmorik.

Alaba aurrean dagoenean, interesatzen zaion horri heltzeko aprobetxatu behar du.

Pilota partiduak aurrera darrai, baina amak ez entzunarena egiten du, ohituta dagoenaren seinale.

—Ez diot buelta askorik eman —bueltak mila eman dizkio, baita erabakia hartu ere nolabait, nahiz eta oraindik ez den gai kanporatzeko.

Berritasunak, konponketak, egunerokoa, ordutegiak, lehentasunak... Gatazkarako bide izanen dira beti, aita eta anaiaren artean arrakala handia baitago. Ama eta Maixanen artean bezala, amak beti nahi izan du alaba etxeko ogibidetik atera, ikasketak egin eta etxean lan egitea aukeren artetik desagerrarazi zion. Beste bizitza modu bat egiteko aukera zabalduz. Baina alabak hurbiltasuna sumatu du beti etxeko zereginekin.

—Jogurten kontua ere hasi zenuen, produkzio bide berri bat, bertan behera utzita aste gutxitan —min egiten duen horretara jo du zuzenean aitak. Maixanen arreta berriz elkarriketan finkatuz. Maixanena eta denena.

Isilune motz bat eragin du aitak esandakoak. Deserosotasunak mahaigainera ekarri ditu, Maixanen etorrerak beti mugitzen ditu barrenak etxean. Batez ere aitarenak. Aita-alabak oso antzekoak dira bai itxuraz baita izaeraz ere, eta etxetik urrun egotea zaila da Maixanentzat, baina baita aitarentzat ere.

—Lanerako esku falta izan zen horren arazoa, ez produkzioa, ezta salmenta ere —tentsio unea lasaitu nahi izan du Eñautek, gai horrek sortzen duen deserosotasuna lasaitu nahian, baina alferrik.

—Jogurtena ene proposamena izan zen... —Maixanek gatazkan parte hartzea erabaki du, pilotakada bueltan etorriko zaiola jakitun izan gabe.

—Ba egin zuk —hor tantoa aitak.

—Zu zurera. Ez sartu neskatoa zuen kontuetan.

—Ez naiz umea, ama —etxeko gazteena beti izanen da etxeko txikia, nahi ala ez.

Mahaiko tentsioa une gorenean dago. Aita-semeak etxeko kontuei buruz bat egin ezinik, bakoitza ertz batean elkarrengana hurbiltzeko pausoak ezin emanda. Jogurten gaiak Maixanen barne

bozgorailua martxan jarri du. Amaren gehiegizko babesa, bere etorkizuna, aitaren tantoa, anaiaren babesa, jogurtak... Ezin du argi pentsatu, nahasi egin zaio barruan duen guztia, ezin du kudeatu gaia. Mahaitik jaiki eta alde egitea ideia onena dela erabaki du.

—Beti ezingo duzu ihes egin —arrazoia du aitak, esaten duen guztian bezala, ez du osteria fintasunik. Askotan esaten duguna baino nola esaten dugun izaten da gakoa, eta horrek ematen edo kentzen digu arrazoia.

Ihes egiteko joera duela ezin da ukatu. Arazoei aurre egin beharrean, urruntzea ere erabaki on bat izan ohi dela sinistu izan du, baina hauen aztarna berekin eramanez ohi du. Hala ere, barruan edo aurrean duzuna kudeatu ezin duzunean irtenbide bat izan daiteke alde egitea, ingurukoei egoera konplikatzea baino. Edo ez. Hori da, gaur-gaurkoz, Maixaren baliabiderik onena egoera zailak kudeatzeko orduan. Momentuz.

PROZESAKETA LEHORRA

Sai arreak hegalaria trebeak dira. Hamarnaka kilometro egiten dituzte indarrik egin gabe, aire beroen bitartez planeatuz. Taldean bizi dira eta horretaz baliatzen dira janaria bilatzeko: sai batek kabala hila atzeman orduko beste anitz juntatuko zaizkio, urrun egonda ere. Sai arreen geroa zalantzan egon izan bada ere, mendez mende artzainek eta saiek elkarrekin bizitzen jakin izan dute, laborantza tradizionalaren eta naturaren arteko oreka izanik aterabidea.

Babesleak, taldean bizi direnak eta naturarekin orekan dihardutenak. Horiek dira ameztoitarrak ere. Maixanek lotura berezia izan du betidanik arreekin, orduak igaro izan ditu hauei begira, hauen jokabidea eta mugitzeko modua aztertuz. Babestuta sentitu izan da haien azpian. Hirira joan zenetik, ostera, taldetik atera izanaren pisua bere gain darama. Hortaz, bueltatu bakoitzean, saien hegaldiak begiztatzen ditu, bere eginez. Taldearen parte izatera bueltatu nahian.

Ardiak maneiatzeari izan da Maixanaren trebetasun eta aterabide. Gustuko du egitea, aitarekin igarotzen zituen orduak izan dute zerikusirik eginkizuna plazer bilakatze horretan. Aitarekin duen urruntasuna, etxearekin duen urruntasunaren erakusle da. Hortaz, bueltatu bakoitzean, ardiekin atera ohi da Maixan, barne gatazkak arintzeko sendabelar gisa.

Artaldeari begira, zer pentsatu jakin ez eta ezer ez pentsatzeko ahaleginetan, arnasa hartzeko tarte behar du une honetan, besterik gabe.

—Badakite nora joan behar duten, inork esan gabe —saiei buruz dakien guztia aitarengandik jasoa izan da, hitz egin bakoitzean xehetasun bat gehitzeko ahaleginak egiten ditu aita eta Maixanek bereganako duen miresmena handituz doa, beti. Elkarrenganako maitasuna ez da hitzez adierazten, ez dute horren beharrik.

Bazkarian jaurtitako hitzak barrutik atera zaizkio aitari, baina horrek ez du esan nahi eragindako minaren jabe egingo ez denik. Maite du alaba baina ez du gaitasunik hura urrun egoteak sorrarazten diona kudeatzeko. Pertsonekin sentimenduak kudeatzen jakin ez eta animaliekin komunikatzeko doia dute, biek.

Bitxia da sai arreena, baserritarrak moldatu egiten dira beren artean animalia hilak hauei eskaintzeko, eta hauek, segituan dakite nora joan behar duten. Banaka, gatazkarik sortu gabe,

hegaldia moteldu eta gunera hurbilduz bakoitzak bere alea hartzen du janetik. Badakite nora joan, badakite nola jokatu.

Maixanek ere badaki nora joan nahi duen, baina ez daki nola jokatu. Saiak zeruan, artaldea aurrean eta aita metro eskasera, bere pisua makila gainean jarrita, alabarengana hurbiltzeko ahalegina eginez. Eta lortuz. Etxean sentitzen da Maixan, etxean baitago, benetan nahi duen lekuan dago. Barne bozgorailua isiltzen zaion lekuan dago, hori da lekua. Baina hori kudeatu egin behar du, barne kudeaketa zein kanpokoak eskatzen baitu.

TXIGORKETA

Arno bana eskuan hartuta, topa egiteko prest, Maixanek eguna borobiltzeko behar zuen momentua ailegatu da. Egun osoan zehar hamaika buelta eman dizkion galdera horri erantzuna emateko unea: zer esango ote du Gexanek. Arno batekin egoerari hobeto eutsiko diola jakitun, edo behintzat, esperantzaz...

—Gugatik!

Kopak igo eta Gexanek hitza hartu baino lehenago, esan beharrekoak lagunartean sortu dituen espekulazioak agerian geratu dira.

—Jakin-min honekin amaitzeagatik! —denek pentsatzen dutena kanporatu du azkenean norbaitek.

—Datorren ezkontzagatik! —espekulazioak nonahi.

—Haurrak aitaren itxurarik ez izateagatik! —aukerak, anitz.

Badirudi denek pentsatu dutela gauza bera. Adinak eta Gexanek daraman bizitza “tradizionalak” behartuta, horiek dira lagunartean egin dituzten apustuak. Argi eta garbi.

Giroa bero dago, lagunak gogotsu daude esan beharrekoa entzuteko eta datozen ospakizunetarako. Baina Gexanek, lagunen goranzko joerarekin amaitu beharra sumatuaz batera, parte hartzeko erabaki ausarta hartu du.

—Gugatik! —gora kopak.

Jendartean ondo konpontzen den horietakoa da Gexan. Egoten dakiena. Entzuten, behar denean eta behar bezala hitz egiteko gaitasuna duena, arretarik deitu gabe erdigune izateko gai, albokoari arreta eskaintzeko prest... Neurriak bilatu gabe topatzen dituen horietakoa da. Orekan bizi dena. Arriskurik hartu gabe.

Horrela hartu ditu segundo erdian jaso dituen olgeta guztiak ere: neurriz, irribarretsu eta barruan duen korapiloa kanporatu gabe. Inolako pistarik eman gabe, esandakoak ezeztatu edo baieztatu gabe. Misterioa mantenduz. Maixanek, ostera, txikitatik ondo baino hobeto ezagutzen duen lagunaren keinu guztiak aztertu ditu; begirada beherantz desbideratu du, irribarrea gehiegi esajeratu du, bekaina igotzear zuela keinua aldatu du...

Serieko hiltzaileen burmuinak aztertzen dituzten telesail horietako baten aurrean denbora gehiegi pasatzen du Maixanen pisukideak, eta agerikoa da beregan nahi baino eragin gehiago izan duela. Ez behar bezala, itxuraz, ez baitu ezer ikasi, espekulatzetik haratago. Ez du ideiarik Gexanek eman behar duen berri horri buruz. Hamaika burutazio izan ditu, hamaika buruko min eman dizkio, barrenak ere astindu dizkio. Baina ziurtasunik ez.

Behingoz topa egin dute eta ohi baino trago luzeagoa eman diote guztiek Irulegiko arno dastagarriari. Biziki ederra dago, kopa berriz betetzeko nahia eragin baitu. Baina, une honetan, begirada guztiak Gexanen gainean finkatu dira.

Isilunea gehiegi luzatu da eta kopa amaitzea, erabakirik helduena ez, baina onena dela pentsatuta, zurrutada bakarrean amaitu du arnoa Maixanek. Behin kopa hutsa eskuartean helduta Gexanen aurpegian finkatu du begirada. Barruan duena askatzera doan lagunaren irribarre eta urduritasunak bere egin ditu...

—Ez noa ezkontzera.

“Ooo”. Festa gogoa da nagusi lagunartean, norbaitek izan behar zuen lehenengoa eta, apustu guztiak Gexanen gain bazeuden ere, Maixanek gogotsu hartu du ezezko albistea. Lasaitasun ukitu bat emango ziolakoan, baina bigarren aukera okerragoa delakoan dago. Arnasa askatu nahi, baina ezin du. “Ez bada ezkondu behar, aita izanen da”. Heldutasuna, finkotasuna, etorkizuna. Maixanen barrenak astintzen dituzten hitz guztiak nahasgailu batean sartu eta amatasuna ateratzen da.

—Lana utzi dut.

Apustu guztiak huts eginda. Ez zegoen inolaz ere aukeren artean. Ez zegoen Maixanen buruan. Ez zegoen inoren buruan. Isilunea luzatuz doan heinean, Maixanek barneko ahotsa geroz eta ozenago entzun dezake, argitasunik gabe, zehaztasunik gabe, oihuak soilik. Ezustekoa nola jaso jakin gabe geratu da.

—Tartategi bat irekiko dut herrian.

Ez du ezer ulertzen. Baionako ospitalean erizain postu finkoa, hamalau ordainsari, oporrak, lantalde fina...Dena pikutara, tartategi bat zabaltzeko 1.600 biztanle dituen herrian. Barruko korapiloa askatu du Gexanek, ez osteria Maixanek. Ezustekoa. Arnasa moztu dio segundo erdiz, ez

daki zergatik, baina ezin du barneratu entzundakoa. Lagunak erabaki hori hartzeko igaro dituen une gogorretan ondoan egon ez izanak hartu dizkio pentsamendu guztiak.

Gexanen lasaitasuna urduritasun bilakatu da lagunaren erreakziorik ezaren aurrean.

—Zorionak? —eskerrak norbaitek zerbait esan duen.

—Baina azaldu ezazu, nola? Noiz?

—Testuingurua behar dugulakoan nago.

Poztu beharreko albistea da? Ala lagunarengandik urrun zaudela argitzeko baieztapena? Aurrez aurre duen lagunaren lasaitasunarekin bat egin nahi duen arren ezinezkoa du, momentuz. Bihotz taupadak arinduz doaz, arnasa zailtasunez hartzen du eta, hitz egiteko nahia ahoan badu ere, ezin du ahoskatu.

—Lanean eroso nengoen arren ez zen nik nahi nuen bizitza. Ez zen ene lekua —Maixani begiratzuz esan ditu hitzak, berari soilik esango balizkio bezala.

—Ausarta zara, Gexan.

—Axolagabetzat ere hartuko nau baten batek. Baina erabakia hartuta dago, eta pozik nago.

—Horrekin nahikoa dugu.

—Lehengaiak behintzat badituzu nork probestu. Hemen gaudenon artean beharrezko guztia izanen duzu... txokolatea, gasna, esnea, barazkiak, ogia... Zerbait gehiago behar al duzu?

—Zuok!

—Gexanengatik!

Kopa hutsa. Ez du zer edan, ezin du edan, ez du edan nahi. Kopari begira, poztasuna, urduritasuna, beldurra eta ardura bere gain hartuta. Kudeatu ezineko korapilo batek hartu dio gorputza Maixani.

Lagunak lagun dira elkarren ondoan egoten dakitelako, ulertzen direlako, babesa direlako, etxe direlako. Horretan guztian huts egin duela sumatzen du Maixanek, horrelako erabakiak ez dira egun batetik bestera hartzen. Inor ez da jaikitzen bere bizitza aldatzeko adonearekin. Orduak, egunak, asteak, hilabeteak... Lagunaren ezjakintasunak azaleratu diren unean aurrean izan eta ikusi ez dituenak birgogoratzen ditu segundo erdiz.

Poztu egin beharko litzateke, lagunak adorez erabaki zail bat hartu duelako. Bere bizitza aldatzeko apustua egin eta benetan betetzen duen horren bila doalako. Berak egin ez duen hori egin duelako. Erreferente bilakatuko delako. Baina ezin du, une honetan ezin du guztia kudeatu. Lagunak lagun dira elkarri begiratzuz elkar ezagutzen dutelako. Gexanek aurrez aurre duen bizi osoko lagunaren begirada ondo irakurri du, eta hau besarkatzera abiatu da.

—Ondo nago, Maixan, ondo nago.

—Barkatu —“zorionak” esan nahi zion, baina hori da atera zaiona. Poztasun erraldoi bat sentitzen duen arren, kulpak bete dio ahoa.

—Barkaidazu zuk —Gexanek ondo irakurtzen du Maixanen barrena, argi geratu den bezala. Aurrez aurre duen lagunaren korapiloa ondo ezagutzen du, eta, jada berea askatu duenean, Maixanena askatzeko alboan egongo dela transmititu dio.

—Oso harro nago zutaz.

Maite dugun jendeari esan beharrekoak kanporatzeko erraztasuna du Maixanek. Beste gauza batzuk ez, baina horiek bai. Denok entzun behar ditugun hitzak esaten ditu, behar den momentuan, une aproposan. Maite zaitut, harro nago, ondo egin duzu... Alde txarra denok esaten dugu; ona, oster, ez da behar beste esaten.

—Noiztik dakizu bada sukaldatzen? —egoera bere lekura bueltatu da, jai girora, lagunaren ondora, denek egon nahi duten lekuan daude eta ospatzeko unea da.

—Zure ondoan igarotako orduak zerbaitetarako balio izan didate.

—Zein izanen da zure berezitasuna?

—Zalantzaren bat duzu? Ameztoiko gasnarekin egindako tarta!

KONTSERBAZIOA

Irina mahaigainean jarri eta erdian zulo bat egin. Gatz pixka bat, arrautza, ura eta bigundutako gurina jarri. Nahasi irina beste gai guztiak irensteko moduan, guztiak bereganatu arte... Horrela hasten da Maixanek igandero egiten zuen gasna tartaren errezeta. Ahuntz gasnaren tarta intxaurrekin egindako orearekin. Ahoa urtzeko moduko nahastea tarta bilakaturik. Hori izan da Ameztoiko Maixanen tarta berezia, amarengandik ikasia, amonarengandik ikasia. Belaunaldiz belaunaldi hobetzen joan den errezeta.

Aspaldi ez du horrelakorik egin Maixanek. Azken lau urteetan ahuntz esnearen jogurta intxaur eskukada batekin izan da bere postrea. Besterik gabe, sinplea, baina beharrezko guztiarekin. Jogurta berak nahi bezala geratu arte egindako hamaika saiakerak gogoan ditu; goiz, eguerdi, arratsalde eta gau osoak lanean igarota. Emaizta lortzea baino, prozesua gozatzea garrantzitsuagoa dela diote sare sozialetako esloganek baina lehen sektoreak ez du emaitzarik, bizitza bat du, bide bezala ulertua. Familia, etxea, sarea, bertokoa, lehengaiak eta lehentasunak. Muga lausoak. Etxea eta lana. Familia eta lankideak. Egunak eta orduak. Aukerak eta erabakiak. Horren emaitza izan da afalosteko jogurta.

Kea dariola dagoen kafearen usainak atera du bere pentsamenduetatik Maixan. Ohi baino freskoago dago goizeko ordu txikiak izateko, gauean buruan ibilitakoek ez diote behar bezala lo egiten utzi, eta pentsamenduek eragindako hausnarketak ditu oraindik buruan.

Kafean koilaratxoa sartzeko ohitura du. Ez dio azukrerik botatzen, ezta esnerik, ezta ezer ere, baina irabiatzeko beharra izan ohi du, geldi eta lasai dagoenari bueltak eman beharrak eraginda. Lasai egon ezin duen horren keinua.

Zurrutada emanaz batera, Donostiako pisuko kafearekin zerikusirik ez duen kafe bat dastatzeko aukeraz gozatzen du. Hori bai kafea, kafe ona. Etxeko lehentasunetako bat da kafe ona.

Beharrezkoa den heinean kalitatezko eta zaindua izan behar duen elementuetako bat.

—Ardiak ateratzen lagunduko al dizut? —etxean eginbeharrak banatuta daude, eta etxean egoteak esan nahi du egite hori Maixanena dela. Maite du egite hori eta gogoetara darama amak bota dion esaldiak.

Leihotik begiratuaz batera sai bat ikus daiteke, bakar bat, hegaldi lasai bezain zuzena eginez. Beherantz begira, babesa eskaintzen, bere abiapuntua eta helmuga zeintzuk diren jakitun den horren hegaldia.

Alabaren erantzunik ezaren aurrean amak ere leihotik begiratzen du, zerbait dagoelakoan, zerbait ikusi duelakoan, baina aurrean duena ikusi gabe. Gainera datorkionaren jakitun izan gabe. Begirada leihotik kendu ezin duela, sabela handitzen hasi zaio Maixani, sastadak ailegatu dira, baina ez da egonezina barrenean duena une honetan. Gorputza bitan banatu zaio, mina, sabelari heldu eta eutsi. Ondo baino hobeto ezagutzen dituen sentsazioak dira, mina, botagura, sastadak... Hamahiru urte zituenetik hilero bidelagun izan dituenak, azken hilabeteetaraino. Inoiz ez zuen pentsatuko faltan botako zuekin. Baina badirudi amaitu dela etenaldia, hemen du berriz hilekoa.

—Zer duzu, Maixan?

Korapiloa askatu da, nahi gabe edo nahita. Barruko bozgorailuari bolumena jaitsi zaionean argitasunez pentsatzeko unea izan du Maixanek eta kanporatu egingo du, nola kudeatuko duen ez dakien arren, esan egin behar du.

—Etxean lan egin nahi dut. Nik neu arduratuko naiz esnekien linea berriaz, jogurtaz.

Isilik egoten ez dakien hori hitzik gabe geratzen denean ona ala txarra den jakitea zaila izaten da. Amaren kasuan, auskalo.

Isiltasuna nahi baino gehiago luzatu da, baina Maixan ez da urduritu, alderantziz, lasai dago.

Hilekoaren minaz okertuta, baina lasai, barrua hustuta. Korapiloa askatuta.

—Kafea egingo dut —ameztoitarren marka atera da.

—Badago kafea, ama.

—Gehiago. Dena beharko da —kafea ona, eta asko.